

1.- Problema irakurri.

2.- Datuak zeintzuk diren begiratu.

3.- Galdera zein den kontuan izan.

4.- Pentsatu erantzuna lortzeko jarraitu beharreko pausuak.



## PROBLEMAK

**1.- Hilarri batean pertsona baten jaioturtea eta heriotza-urtea ageri dira.**

**Jaioturtea: MDCCXCIV; heriotza-urtea: MDCCCLXIX.**

Zein mendetan bizi izan zen?

Zenbat urtez bizi izan zen?

**2.- Sail batean hiru zati bereizi dira:  $\frac{1}{4}$ ,  $\frac{5}{12}$  eta  $\frac{2}{6}$ . Zati horietatik....**

Zein da handiena?

Zein da txikiena?

**3.- 25.000 biztanleko hiri batean, %20k garraio publikoa erabiltzen dute alde batetik bestera joateko.**

Kalkulatu zenbat pertsonak erabiltzen duten normalean garraio publikoa.

**4.- 22 ikasle eta 2 irakasle zoo batera joan dira. Taldeko txartel bat eman diete, 95€-ren truke, eta baita bazkaltzeko bono bat ere, 82€-ren truke.**

Bakoitzak zenbat ordaindu behar duen jakin nahi dugu.